



ETA ZUK, ZER AUKERATZEN DUZU?

#LaSallekZuAukeratzenZaitu

Zurekin gaude. Zu, hezitzaile, anaia, ikasle edo guraso, zu zara La Salle. Zu zara, lehen eta orain, gure motibazioa, gure izatearen arrazoi eta misio, garai zailak izanda ere, salletar belaontziari aurrera bultzatzen dion haizea. Beti elkarrekin egingo dugu aurrera.

2020-2021 ikasturtea beso zabalik hartzeko prest gara. Gure adimena, ilusioa eta ahalegin saiatua beti daude salletar familia handiaren zerbitzura, guztiok baikaitu partaide. Gertatzen ari denari adi, ahalegin osoa egiten ari gara erronkak pizgarri izan daitezen gure ikastetxe eta obretan heziketa lanean eta ikasten ari garenontzat, eta ikasturte hau esperientzia ahaztezina izan dadin, irailari ekiten diogunean beti gertatzen zaigun moduan.

Aurreko ikasturteko azken hiruhilekoan eta ikasturte honen hasieran bizi dugun egoerak hainbat zalantza dakarzkigu, egia da hori, baina La Salleren 300 urteko ibilbideak ematen digun izaeraren argiaz begiratzen diogu egoerari, pertsonak gure proiektuaren erdian jarrita, eta premia handiena dutenengandik hurbil izan behar dugula jakinda. Hezkuntza eraldatuz, mundua eraldatzen dugu, gizarte hobeto bat eraikitzeko.

Ongietorria ematen dizuegu 2020-2021 ikasturtean, eta elkarrekin gure historia eraikitzen jarraitzea gonbidatzen dizugu.

La Sallek konpromisoa, erantzukizuna, fideltasun sortzailea, berrikuntza eta hezkuntzarako grina darabiltza egoera honi aurre egiteko. Bide horretan, zu bezalako pertsonak nahi ditugu ondoan, balio horiekin bat egin eta etorkizuna gaur bertan gertagarri egiten dutenak. Horrela lortuko dugu, garai ezberdin hauetan, hezkuntza erantzun bat izaten jarraitzea.

Eskerrik asko guztioi La Salle izateagatik. Eskerrik asko, elkarrekin lan eginez gero, ezer ez baita ezinezko. Eskerrik asko gure hezkuntza proiektuan sinesten duzulako, harantzago begiratu eta bestelako etorkizun bat eraikitzeko.

ESKERRIK ASKO

Barrutiko Animazio Taldea

